

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2339

EBAZPENA, 2014ko maiatzaren 15ekoa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinarekin argitara ematen baita 2013an emandako diru-laguntza batzuen onuradunen zerrenda, zehazki, kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko laguntzen onuradunena, betiere Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuan oinarriturik.

Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren xedea hauxe da: Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzako sektorean lehiakortasuna areagotzeko eta nekazaritza eta ingurumeneko neurriak hartzeko laguntzen esparru-arauegia ezartzea, irailaren 20ko 1698/2005 (EE) Arauegian xedatutakoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko Programaren arabera.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2013ko urriaren 17ko Aginduaren bitartez, aipatu laguntzetarako 2013ko deialdia egin zen.

Aipatu dekretuak ematen dizkion eskumenez baliaturik, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariak ebazpena eman zuen aipatu agindu horren arabera eskatutako laguntzak ematearen gainean.

Beraz, behin esleipendunei zegokien ebazpena jakinarazitakoan, egoki da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ematea argitara laguntzak eta horiek onuradunak argitara ematea, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 49. artikuluko 2. paragrafoarekin bat etorriaz –Dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zen.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Jende oro jakitun izan dadin, argitara ematea honako hau: Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuan oinarriturik eta 2013an, kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko laguntza ekonomikoen onuradunak nortzuk diren; horien zerrenda ebazpen honen eranskinean jasotzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 15a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

ERANSKINA

Nekazaritzarako egiturazko eta ingurumeneko laguntzei buruzko uztailaren 8ko 133/2008 Dekretuaren babesean kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuak ezartzeko, 2013. urtean emandako diru-laguntzak.

Onuradunak	Norberaren fondoak	Lgnes fondoak	Guztira
Abelur, Sdad. Cooperativa	15.383,84 €	8.653,40 €	24.037,24 €
A.G.A., Sdad. Cooperativa	7.606,74 €	4.278,79 €	11.885,53 €
Basoekin, S. L.	8.473,60 €	4.766,40 €	13.240,00 €
Lorra, Sdad. Cooperativa	19.818,71 €	11.148,02 €	30.966,73 €
Lurgintza, Sdad. Cooperativa	8.564,29 €	4.817,42 €	13.381,71 €